

Belodromoa

Euskaldunon Egunkaria, 1992-12-22: 2.

Santo Tomas Bezperan ospatu zen, ohi dugun moduan, EUSKALDUNON EGUNKARIAren bigarren urtebetetzea eta hirugarrenaren hasiera. Eta aurreko biek iragarri bezala, bete zen oraingoan ere eta sartu ezinik gainezka geratu geure herriko neurgailua den belodromoa. Hau marka berria da, eta askori pentsa arazi behar liokeena. Hau ez da politikaren eraginez inoiz gertatu, eta egunkari erdaldunek egin dezatela aproba, ikustekoa izango litzateke ondorioa. Neronek izan nuen honen zergatiaz hitz bat esateko parada. EGUNKARIAk lortu duena, esan nuen ikuskizunaren aurkezleen galderari erantzunez, eragileek espero baino handiago izan dela, eta ez gure merezimenduz. Euskarak baduela gure herrian, berez, beste herrietan berea den hizkuntzek duten bezala, eragin sakon eta harrigarri bat, eta gaur Euskal Herrian lokarri estu eta tinko bat izaten lagundu diola EGUNKARIAri. Hau da hizkuntzaren magia. Lehen, eta oraindik!, Ikastolari eragin zion eta dion bezala. Hizkuntzaren arnasa, herri guztietan herri izaten jarraitzeko beharrezko bada, Euskal Herrian dugu beharrezkoen, gerraz ea mainaz zatituta denbora gehiegi eduki gaituztelako, eta geure erruz ere, esan beharra dago ozenki!, geure erruz ere egon garelako eta oraindik zatiketarik emanda ari garelako! Honetxegatik du garrantzi haundia belodromoko gertakizuna kontuan hartzea: igandeko euskal elkartasun jaia urteroko neurgailu eta bide erakusle bihurtu zaigulako. Ikus nola erdal egunkari batzuek aipatu ere ez duten egin!